

BIZITZAREN SOSTENGARRITASUNERAKO BIDEAN: HERRI MUGIMENDUEN ANTOLAKETA EGITURAK ETA MILITANTZIA EREDU BERRIAK

DESKRIBAPEN OROKORRA

HERRI MUGIMENDUEN JARDUNAK BIZITZAREN SOSTENGARRITASUNAREKIN DUEN HARREMANA HIRU DIMENTSIOTAN AZTERTU DA: EUREN HELBURUEN, ANTOLAKETA EGITUREN ETA MILITANTZIA EREDUEN ARABERA.

HAINBAT AUTOREK EDOZEIN GIZARTE MUGIMENDUREN HELBURUA ERALDAKETA SOZIALA DELA BAIEZTATZEN DUTE. EGUN BIZITZEN ARI GAREN SINDEMIAK ERALDAKETA SOZIAL ORO BIZITZAREN SOSTENGARRITASUNA AINTZAT HARTZEA ESKATZEN DU.

HERRI MUGIMENDUEN HELBURUAK, ETA BERAZ, BIZITZAREN SOSTENGARRITASUNA LORTZEKO DENBORAN SOSTENGARRIAK IZANGO DIREN ANTOLATZEKO ZEIN MILITATZEKO MODUEN PREMIA MAHAIGAINERATU DA; ETA HORI GUZTIA LIZARRALDEKO MUGIMENDU FEMINISTA ARDATZ IZANIK AZTERTU DA.

EMAITZAK

HERRI MUGIMENDUAK ETA GAUR EGUNGO ERRONKAK

- LIZARRALDEKO MUGIMENDU FEMINISTAK GIZARTE MUGIMENDU OROREN MODUAN, ERALDAKETA SOZIALA BILATZEN DU (IBARRA, 2005).
- SINDEMIARI AURRE EGITEKO ERALDAKETA SOZIALA BIZITZAREN SOSTENGARRITASUNETIK IGARO BEHAR DA.

ANTOLAKETA EGITURA FORMAL ETA INFORMALAK

- LIZARRALDEKO MUGIMENDU FEMINISTAN EGITURA INFORMALA NAGUSITU IZANAREN EMAITZAK:
- INFORMAZIOA BEHAR BEZAIN GARDENA EZ IZATEAK EGITURA INFORMALEKO KIDEEI TALDE-IRITZI SENDOAK ADIERAZTEKO AUKERA EMATEN DIE BOTERE HARREMANAK BIRSORTUZ.
- ASANBLADAREN SOSTENGARRITASUNA KOLOKAN JARTZEN DU. INFORMAZIOA, ETA BERAZ, ERABAKITZEKO AHALMENA ETA BOTEREA EGITURA INFORMALAREN PARTE DIRENEN ESKU GERATZEN DA.

MUGIMENDU FEMINISTAREN EKARPENAK: MILITANTZIA EREDU BERRIAK

- MUGIMENDU FEMINISTATIK BESTELAKO MILITANTZIA EREDUAK MAHAIGAINERATZEN ARI DIRA. HORIEK HERRI MUGIMENDUEK DUTEN BIZITZAREN SOSTENGARRITASUNAREN ERRONKARA HURBILDU GAITUZTE:
- LIZARRALDEKO MUGIMENDU FEMINISTAREN TALDE BATZUK MILITANTEEN ZAINZTA ERDIGUNERATU DUTE: "FAMILIA GARA. ETA HOR SENTITZEN DUGU BABES-SARE IZUGARRIA".
- BAINA EGITURA INFORMALEKO KIDEAK: EZKER ABERTZALEKO FAMILIA IDEOLOGIKOKO EMAKUME GAZTE, EUSKALDUN, ZURI, KAPITAL KULTURAL HANDIKOAK ETA KLASA SOZIAL ERTAINEKOAK.

ONDORIOAK

- EGITURA INFORMALAK MUGAK JARTZEN DIZKION EGITURA FORMALA EZ DUENEAN *ELITE* BATEN SORRERA AHALBIDETZEN DU.
- LIZARRALDEKO MUGIMENDU FEMINISTAN EGITURA INFORMALA NAGUSITZEAREN ONDORIOZ, BOTERE ASIMETRIAK AREAGOTU DIRA ETA HORIEK MODU INFORMALEAN SORTZEN DIREN *ELITEEN* BIDEZ GORPUZTU DIRA.
- ELITE* HORIEN GARAPENAK LEHENETSITAKO MILITATZEKO EREDUAREN ONDORIOZ, BESTELAKO MILITANTZIA EREDUAK EGITURA INFORMALETIK AT GERATU DIRA, MILITANTZIA EREDU ZURRUNAK ERDIGUNERATUZ.
- HORREN AURREAN, INFORMAZIOAREN ETA BOTEREAREN KUDEAKETA DEMOKRATIKOA EGINGO DUTEN ETA GARDENAK ZEIN BARNE HARTZAILEAK IZANGO DIREN EGITURA FORMALAK BEHAR DIRA.